

- **Entzutekuak:** Beldur Barik lehiaketako irabazleei elkarrizketa.
- **Zer berri:** Berbalagun egitasmoak mintzakideak behar ditu .

soraluzeko
hamabostekaria **254.** alea
2011ko azaroaren 11an

PIL-PILEAN



IGOR GOIBURU
etxeko garagardogilea

EPOCA-GORO

SUKALDE ETA BAINUGELA ESTUDIOA

San Juan kalea 5. EIBAR • 943 700 216
www.epocasukaldeak.com



SUKALDEAK • BAINUGELAK • PROIEKTUAK • ERREFORMAK • DISEINUA



7 = 1

ESKERRIK ASKO!

amaiur



IÑAKI AMUATEGI



OSKAR ELIZBURU

ZUBIADARRA

Eup! Hamen najaok, Oskar, Pil-pileaneko ataxan, Maitek egindakuari jarraipena emon eta hirekin zubi barrixa eraiki nahixan. Zelan habil Arrasate aldian? Mondraguen bizi dan plaentxiarra haiz ondiok? Ala denboriakin zerrajerua egin haiz? Etzakixat heu, baiña neu behintzat, Amaña-Eibar

-Plaentxia artian ekilibrixuak egiñaz bizi nok. Beste batzuek be erakutsi juek *funanbulu* izaeria hauteskunde kanpaiñan, bai horixe! Gipuzkuako ufala ikusi ostian, “lau tanta” izan zirala esatia be! Dringili-drangala dabilztan seiñale. Hillan hasierakua, ostera, ez dok ufal bakarria izan azaruan, hauteskundekapainagogaikarrixa atzian laga eta iragarritta zeguan moduan, “kaio urdinak” nagusi dittuk Estatuan. Moko-zikinon zaratiak apenas lagatzen jeskuk *sumindutako* txori txikixen kantu melodikuaguak entzuten.

EHra etorritta, zubigintzan hasi barrixa dan mugimenduak oiñarri senduak dittuala erakutsi jok, espero deigun hauteskundietatik harutzago juatia eta *zubigile taldia* gero eta handixagua izatia, dana biharko juagu eta! Gauzak aldatzen has-teko etxaok ingenierua izan biharrik, bakoitzak bere neurrixan, baina danok hartu geinke parte *Maltzagara eruango gaittuan 7 koloreko zubiadarrak eraikitzen*. Lehengo estiloko auzolana jaukat buruan, errekek eta erretenak garbittu, bidiak konpondu eta danon ondaria zaintziaz aparte, espiritu hori egunero-kora, zergaittik ez politikara be, eruateko aukera politta dogula uste juat.

Markosena baino sendotxuagua izan biharko jok zubi barrixa, zubiadarran modukua, kolore asko eta altura handikua, ez jaok holako zubixa eruango daben ufalik, ez horixe! Zer deritzok Oskar?

“

**“Zubigintzan
hasi barrixa dan
mugimenduak
oiñarri senduak
dittuala erakutsi
jok”**

Iñaki Amuategi

**“Zubixak, baina,
norabaittera
eruan bihar
gaittu, toki
jakinera,
babestura”**

Oskar Elizburu

”

Ikusten juat funanbulu bizimodu horretan plaentxiarren ikuspuntuak daroiala hartzen indarra; zein izango izenburua eta Plaentxiako bi hitz garrantzitsuenetakuen baturia: Zubixa (gure bizileku-gune ohikoena) eta adarra (adarjole izena eta izana

jaukagu, duda barik, plaentxiarrok). Eta Amaña-Eibartik plaentxiartuta, zubi bareko leku horretatik etorritta, zer eta gure herriko ardatza dan errekoa eta bertatik pasatutako ufal ugarixetako imagina; igartzen jak bertako odola be! Euskal Herritik makinatxo bat ufal pasatzen dok, bai. Batzuetan ura bere neurrixan, gaiñezka egin barik, garbiketarako ona; beste batzuetan, ostera, demasa izan eta dana aurrian eruanda oiñazia eta negarra besterik ez jok laga. Espainian izan

dan azken ekaitz tropikal horrek eragindakua ez dok, momentuz, honaiño heldu. Emoten jok kaixuek gureraiño ekartzeko ainako haizerik ez dala egon.

Baiña kontuz ibil gaittezan, Txisto, *urak eta suak, belaunetik behera* komeni; eta han, gerritik gora nahikua ez eta, lepotik gora ere bajaukek.

Hik esandako moduan, hemen zubi haundixa eraikitzen hasitta gauaz, altua eta zutabe askotakua. Zubixak, baina, norabaittera eruan bihar gaittu, toki jakinera, babestura; bertan gure hitza balekoa izango dan Euskal Herri batera. Eta langintza horretan eskuz esku bihar juau danok; txindurrixen moduko lana, eten barekua eta danon onerako.

Ea zubiadar koloretsu hori euskaldunon bilgune eta babesleku bihurtzen dan; bestelakuen uholdia iritsiko balitzakuk be, elkarrekin babestuta egon gaittezan. Eta zubi barri horren erdixan, babestuen eta bertatik pasatu beharreko guztiek erabili beharrekoa, jar daigun Euskeria, Balmasedakuan atea daguan erara, izan be, Euskeria dugu atia eta giltza.

Goguan hartzeko

**Ekinaren indarra ekinaz neurtzen da.
Gotzon Garate. Euskal atsotitzak.**



Pil-pilean aldizkariko gutunetako irizpideak

- Pil-pileanek beti bermatuko du gutxienez hiru gutunentzako lekua, aniztasuna lortzeko eta gutuna argitaratu nahi duten guztiei aukera eskaintzeko. Ondorioz, hiru gutun daudenean, 1.100 karaktereko luzera izango du gehienez gutun bakoitzak. Bi gutun jaso ditugunean edo bakarra, gehienez 1.900 karaktereko luzera izateko aukera izango du gutun bakoitzak. Karaktere kopurua ez bada irizpideotan azaldutakoa, Pil-pilean aldizkariko erredakzioak mozteko eskatuko dizu.
- Hiru gutun daudenean, norbaitek 1.900 karaktereko gutuna bere horretan mantendu nahi badu, hurrengo alean argitaratzeko aukera izango du, baldin eta beste bi gutun iristen ez badira. Kasu horretan, 1.100 karakterekoa sartzeko aukera bakarrik izango du.
- Zein gutun sartu eta zein kanpoan geratu erabakitzekeo gutuna jaso den data kontuan izango da. Bestetik, aurreko alean gutunik sartu ez zuen norbanakoak edo taldeak lehentasuna izango du aurreko alean gutuna sartu zuenaren aurrean.
- Gutun guztiek izenpetuta egon beharko dute, pertsona bakarraren edo gehiagoren izenean edo talde identifikatu baten izenean. Ez da onartuko adibidez, “herriko jubilatutako batzuk” edo “auzokide batzuk” edo horrelakorik.
- Gutun guztiek formatu bera izango dute: izenburua beltzez, testua eta egile(ar)en izena(k). Ez da letra NAGUSIRIK edo **bel-tzezkorik** azalduko testuan.
- Epea: aldizkaria argitaratzen den asteko martitzen eguardia baino lehenago jasotako gutunak bakarrik argitaratuko ditugu.

© Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonia:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Urribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Maite Kintanilla
Giltza

Bittartetik zirrikitu bat eginaz sartu naiz, asmakizun itxuran helduz: “Zer ete da iraganandaria, orainanlanabesa eta etorkizun giltza?” Eskuz esku, belaunaldiz belaunaldi alkarri erakusten jua gara Euskal Herrixan luze eta zabalian. Auzolana: guk alkar ulertzeko eta jarduteko modu bat, finian izateko era bat. Sentimendu bat abiapuntu, kolektibotasunetik komunitate baten parte sentitzerainokua. Bagarala adierazteko bidia, kultura oso bat. Hamaika itxura hartzeko gai dana, iraganian sortu eta etorkizuneraino eraberritzen jarraitzen dabena. Baina zer litzake auzolana, gu danok barik? Eskubide eta betebehia batzuen gainian egosten da, alkarren begiradak parez pare kokatuz, harreman horizontaletatik abiatuz. Gure artian sortzen dan elkarlana da giltza! Hamaika kontu iraganetik ikasten jarraitzeko, sortzen jarduteko. Eta beste hainbeste adibide, bagarala adierazteko: amalurrari helduta kontsumo taldia hartzeko urratsak, Gaztañerretan eskuz esku sortutako kolore danak, Gaztetxian egunez egun eraikitako pareta eta ilusiñuak, Pil-pileaneko sutonduan bueltan sortutako irri baikoitza... Segi deigun alkarrekin dantzian, auzolanen bueltan!!

Soraluze Beldur Barik lehiaketako irabazleak.

Soraluzen ere emakumeek beldur barik bizitzeko eskubidea dutela aldarrikatzeko aurkeztutako sei lanen artean, Koldo Etxanizek, Idoia Malcorrak, Alazne Etxeberriak, Olaia Altunak, Lore Gallastegik eta Tere Guenetxeak ekoiztutako lanek jaso dituzte Soraluze Beldur Barik lehiaketako lehenengo sariak. Edozein adierazpen artistiko erabilia ere, lanok, genero indarkeria salatzea dute helburu.

Zorionak! Pozik lortutako emaitzakin?

Oso pozik! Lehiaketan parte hartziak genero indarkerixiak sortzen dabenez egoerez jabetu eta gure kontzientziak astintzeko balixo izan dosku.

Zer jaso nahi izan dozue aurkeztutako lanetan?

Emakumiak jaiotzaz emakume diralako gizartian dauken rola apurtzeko gonbitia egin nahi izan dogu. Emakumiak beraie bukuak babesteko gai dirala esateko eta sinesteko ordua be bada.

Zer da bada zuentzat beldur barik jardutia?

Eguneroko bizimoduan libreki aritzia, inongo muga sozial, ekonomiko, politiko zein kultural bare. Genero indarkerixiak sortzen dabenez zapalkuntzarik bare bizitzia.

Horretarako zein pauso jarraitu beharko dittugu?

Genero indarkerixia arazo kolektibo moduan ikusi eta danon artian aurre egin bihar dotsagu. Arazuak egun daukan tamainaz jabetzia biharrezkua da jarrera



Beldur barik lehiaketako irabazleak.

senduak hartzeko. Gizartian ezarritako rol matxistak iraultzeko honek detektatu eta aldatzia posible dala be sinestu biharra daukagu.

Beldurrakin bizi diranei zela lagundu?

Kasua kasuko laguntza eskaintzia da onena baina danei, bizitza bakarra dala eta bizitza hori beldur barik bizitzeko eskubide osoa daukela sinestaraziko gontsake. Beldurra sortzen dotsen horretaz askatzeko baliabidiak eskaini; autodefentsa feministak lagundu ahal dau horretan. Emakumiak saretzia indarrak batzeko modu ona da. Alkarrekin berba egin eta arazo pertsonala kolektibo bihurtu: lotsak, kontrolak, isiltasunak... beldurrak azken finian.

Zela lortu generuen arteko etorkizun parekidia?

Heziketan dago etorkizuneko giltza eta heziketa hau parekidia izan bihar da nahitaez. Umetatik markatutako rola apurtzeko sasoa da, gure ondorenguen hankartiak etorkizun libria dastatzeko muga izan ez daittezen.

“Arazuak daukan tamainaz jabetzia biharrezkua da jarrera senduak hartzeko”

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

H.NOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Astean ordubetez berba egiteko lagunak behar dira

Euskara maila hobetu nahi duten pertsonak eta bidelagunak (euskara maila ona dutenak) batu eta euskara praktikatzeko egitasmoa da Berbalaguna. Disponibilitate eta gustuen arabera osatzen dira talde txikiak (3-4 pertsona) eta astero ordubetez euskaraz berba egiteko batzen dira adostutako lekuan (tabernan, kiroldegian, bidegorrian...). Horixe da Berbalagunak eskaintzen duen aukera. Egitasmoa herritar gehiago batzeko asmoarekin, abenduan kanpaina

jarriko dute martxan Udalak, Pilpilean Euskara Elkarteak, eta AEK-k. Abenduaren 2an azalduko dira prentsaurrekoan antolatzaileak eta lehendik egitasmoan diharduten hainbat parte hartzaile Berbalagun egitasmoaren etapa berria aurkezteko. Egitasmoan izena emateko epea abenduaren 2an zabalduko da eta doanekoa izango da. Izena emateko: euskara@pilpilean.com helbidera idatzi, 943751304 (Pil Pilean Euskara Elkarte) deitu edota AEK edo Udaleko Euskara zerbitzura jo daiteke.

“Bertsolari” filma Euskararen Egunean.

Datorren barixakuan, abenduaren 2an,, “Bertsolari” film eza-guna proiektatuko dute herriko antzokian, gaueko 22:15ean. Euskararen Nazioarteko Egunaren arira proiektatuko da filma. Abenduaren 3an berriz euskararen inguruko mezua zintzilikatuko dute udaletxeko balkoian.



Kalean, tabernan... gustoko lekuetan batzen dira berbalagunak.

Deba ibaia lehen baino garbiago

Ibai-lagun egitasmoa arrakastaz burutu da herrian. Aurreko domekan 35 boluntarioren artean zabor poltsa ugari bete zituzten. Ibai hondotik denetik atera zuten, plastikozko botila eta bilgarriak, lata eta burdin pusketak, egur zatiak, gurpilak, zapatila eta txankletak, zepo bat, auto bateko ihes-hodia eta bizikleta esaterako..



Iturria: Debegesa

Kontsumo taldea sortzeko bidean

Bertako produktuak ekoiztu edo kontsumitu nahi dutenek EHNEko ordezkariaren laguntzaz lehen bilera egin zuten aurreko eguaztenean. Hurrengo hitzordua abenduaren 11n goizeko 10:30ean Arizaga baserrian izango dela zehaztu dute. Taldeak gonbidapena luzatzen die herritar denei.



Misio taldeak 1.786 euro batu ditu

Soraluzeko Misio Taldeak etxean presatutako gozokien salmentarekin 1.786 euro batu zituen Gaztañerre azoka egunean. Abenduaren 9an etxean ekoiztutako panpinak eta herriko merkatariek eskaintutako produktuak zozketatuko dituzte tonbola bidez. Errifak 18:00etatik 20:00ra bitartean salduko dituzte, euro baten, kontzejupean.

Soraluzetarra da Deba ibaian hildakoa

Ignacio V.G. da Deba ibaian azaroaren 13an hilik agertu zena. Hala jakinarazi zuten bere senideek Donostian gorpua identifikatu eta gero. Gizonak 53 urte zituen, Deba ibaian agertu zen Mendaroparean, hilik. Ertzaintzak jakinarazi duenez heriotzaren zergatia ikerketa prozesuan dago, epaitegietan.

Bazkari omenaldia Itxaropenan

Itxaropena Jubilatuen Elkarteak Heraclia Maiztegi eta Hilario Iturbe omenduko ditu bihar, zapatua, eguerdiko 14:00etatik aurrera egingo den bazkarian. Sasoi betean 80 urte baino gehiago bete dituztela aitakia hartuta, sari eta erramu bana banatuko zaizkie.



JUAN MARI
ARRAINDEGIA
943 75 24 40
MERCATU PLAZA

ESKERAJK ASKO PLAZENTZATARRAI
GUGAN IZENDAKO KONFIANTZAGATIKI



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Genero indarkeria salatzeko elkarretaratzea

Gaur, azaroak 25, Emakumeengana-ko Indarkeriaren Kontrako Nazioarte-ko Eguna aldarrikatzeko arratsaldeko 19:00etarako "Beldur barik" lemapean elkarretaratzea deitu dute Emakumeen Topaguneak eta Udaleko Berdintasun sailak. Gaueko 22:15ean Zinean Emakume Ausarta taldeak "Pareja abiarta" antzezlan eskainiko du.

Baserrizaleen III. topaketa

Baserritik-baserrira topaketak hama- bost baserrizale inguru batu zituen aste- buruan. Zeleta baserriko mermeladagin- tza ezagutu, Argarateko ortua ikusi eta Zabaleta baserriak duen egituraz jardun zuten bertaratu zirenek. Ondoren bide zaharretik San Andres auzora igo eta bertan babajana goxoa zuten zain.



Mingainluzeek zinea bete zuten

Atxolin Guraso Elkarteak aisialdia eus- karaz lantzeko proposamen berriarekin ekin dio ikasturte berriari. Orain arte, urteko domeka guztietan, euskarazko pelikulak proiektatzen zituzten. Aurten Mingainluze lehiaketarekin tartekatuko dituzte aipatutako filmak. Lehiaketaren helburua lehen hezkuntzako ikasle eta irakasleak batzea da, aisialdian euskaraz dibertitzeko.


Iturria: Iker Makinai



Amaiur koalizioa bozkatuena Soraluzen

A maiurrek jaso ditu botu A gehien Soraluzen, 865 guz- tira. EAJk 473; PSOEk 407; PPk 291; IUk 44 botu; UPyD alderdiak 14; EQUOk 11; PACMAk 7; Zuriak 18; Nuloak 19; 2149 herritar joan

dira hauteslekuetara botua ema- tera. Abstentzia %32,12koa izan da, 2008ko hauteskundeetan baino %11,46 txikiagoa.

Auzoz auzoko emaitzak: 

Alderdiak	2011	2008
AMAIUR	865 (%27,23)	
EAJ	473 (%14,89)	537 (%28,79)
PSE-EE	407 (%12,81)	717 (%38,45)
PP	291 (%9,16)	282 (%15,12)
IU-Ezker Anitza	44 (%1,38)	(EB-B) 46 (%2,47)
UPyD	14 (%0,44)	
EQUO	11 (%0,34)	
PACMA	7 (%0,22)	
PUM+J	3 (%0,09)	
U.C.E	3 (%0,09)	
Botoak guztira	2.149	



Banatu dituzte Soraluzeko Beldur Barik sariak

B eldur Barik lehiaketako So- raluzeko sariak banatu zituz- ten aurreko astelehenean Zinean. Lehen kategorian saritua Koldo Etxaniz izan da "Antimatxista- man" izeneko lanarekin. Bigarren kategorian Idoia Malcorra, Lore Gallastegi, Alazne Etxeberria eta

Olaia Altunak ekoiztutako "Ausar- tu" lanak irabazi du eta hirugarren kategorian proposamen bakarra egon da, Tere Guenetxeak aurkez- tutakoa. "Beldur Barik" izenpean argazki albuma aurkeztu zuen. Ira- bazle denek 200 euroko diru saria jaso dute.



Lehiaketako irabazleak pozik sariarekin.

TXURRUKA
JATETXEA
 www.txurruka.com
 943 75 15 81

Txoko kafetegia
 Kafe ederra hartzeko txokorik onena!
 Kalebarren 22. behea, Soraluze, Tel. 943 75 17 89

“Edatean dastatzea gustatzen zait, ez besterik gabe kontsumitzea”

Igor Goiburua

Hernaniar honek hiru urte daramatza Soraluzen. Etorri eta berehala, lehendik zetorkion afizioari heldu zion, garagardoa ekoizteari. Bere zerbezak tabernetan hartzen dugunaren antza baino monastegietan egiten zuten zerbezarena du haundiagoa, bere elaborazio, zapore eta itxuragatik. Zuria, garizkoa, xigortua eta beltza egiten ditu.

Noiz eta zergatik hasi zinen zerbeza egiten?

Itoizko urtegiaren gainean dagoen Lakabe herri auto-gestionatuan bizi izan nintzenean hasi nintzen.

Han dena guk egiten genuen eta garagardoa falta zen. Kataluniara joan ginen ezagun batzuegana, ikastera. Handik bueltan egiten hasi ginen eta azkenean ni bakarrik geratu nintzen, herriko garagardogile bilakatu nintzen. Duela hiru urte Soraluze etorri eta zerotik hasi nintzen.

Egin zenuen lelen garagardoa zelakoa zegoen?

Ba gogoratzen naiz momentuaz. Ikusmina haundia zen baina esan genuena izan zen: “Beno, garagardoa dirudi behintzat!”.

Garagarra lantzetik botiletara, zuk egiten duzu dena. Garrantzia ematen diozu autogestioari?

Garrantzitsuena da garagardoa etxean egitea. Gure garagardoa industrialia baino askoz delikatuagoa da. Transportatzea zailagoa da kontserbanterik ez darimalako, kontserbante naturala baino ez, lupulua.

Zure burua artisautzat daukazu?

Egiten dudana artisautza da, eskuz egindako gauza bat delako. Eta ez dena beti berdin ateratzen.

Hartzitzen erabilitako legamiak ez du ezertarako balio eta horrekin ogia egiten dut. Garagarra ere animalientzat izaten da.

“Industrialia beti izango da berdina, horrela izan dadin ziurtatzen dute”

Arreta berezia eskatzen duen lana da orduan.

Prozesu guztiak dira inportanteak, hasieran zerbait gaizki egin ezker, dena kakatara joan daiteke. Ez baduzu tenperatura konstante mantentzen, nahiz eta errezeta berdinarekin egin garagardoa beti desberdin ateratzen da.

Ze behar duzu zerbeza egiteko?

Ura, garagarra, legamia eta lupulua. Garagardo batzuk erabiltzen duten urarengatik dira famatuak. Ura zaporez leuna denean, garagardo rubioa egiteko balio du, ur “gogorak” garagardo beltza egiteko dira onak. Nik Txurrukako ura erabiltzen dut.

Garagar desberdinak daude halaber.

Garagarra malteatua izan behar da: garagarra jaso, germinatzen jarri eta labe batera sartzen da xigortzeko. Labean egondako denboraren arabera, garagar hori txuriagoa edo xigortuagoa izango da. Hori da azukrea alkohol bihurtzeko duen osagaia. Nire ametsetako bat garagarra etxean malteatzea da, baina pauso konplexua da.

Pausoz-pauso honela egiten du garagardoa Igorrek.



Lehenengo fermentazioan 4-5 egun egiten ditu.



Zenbat zerbeza litro egiten dituzu?

Nik 25 litro egiten ditut. Horretarako 5-6 kilo garagar, malta, 60-80 gramo lupulu, klasearen arabera mikaztasun puntu desberdinekoak daude, eta 10 gramo legami. Neurria hartzen da denborarekin.

Zelan egiten duzu bata baltza, bestea zuria...

Txuria, xigortua, garizkoa eta beltza egiten ditut. Malta desberdinen konbinaketatik sortzen dira zerbeza klaseak. Malta oinarri bat daramate denek. Rubioa egiteko malta oinarria bakarrik behar da. Xigortua, malta oinarriaren eta xigortuaren arteko nahasketatik dator. Beltzak, xigortutako malta kantitate gehiago behar du. Azkenean nahasketarekin eta proportzioekin jolas-tean datza.

Bestelako garagardo industrialik edaten duzu?

Etxean egindako garagardoa edatera ohitu naiz, nahiz eta etxekeotan ere, kalitate gutxiokoak egon badauden. Edatean dastatzea gustatzen zait, ez besterik gabe kontsumitzea.

Botilan, zurittoa ala kaña, rubioa kontsumitzea gustatzen zaigu.

Ez daukagu garagardo kulturarik. Ardoarekin hasi gara jakituria hartzen, baina garagardoaren gainean gutxi dakigu. Hartzidura bajuko garagardoa edaten dugu, "lagerrak". Industrialak oso hotzak edan behar diren garagardoak izaten dira, freskagarri moduan edatekoak. Nerea "ale" izenekoa da, temperatura altuagoetan zapore eta gorputz gehiago daukana.

Zergatik dira beti berdinak?

Beti izango da berdina, horrela izan dadin ziurtatzen dutelako. Pasteurizatu egiten dituzte bakteriak hiltzeko, onak zein txarrak; onak, legamia adibidez, hiltzean, ezin du gasa naturalki sortu. Horregatik artifizialki sartzen diote gasa.

Zure inguruan zelako harrera izan du zure garagardoak?

Jendeari xigortua da gehien gustatzen zaiona. Beltza, xuabea baina nortasun haundikoa da. Oraindik ikasten ari naiz eta hobe hanka orain sartzea eta

ez aurrerago. Negozio bat izaten badut, esperientzia hartuta egongo naiz.

Egingo zenuke negozio bat honetatik?

Nahiko nuke, baina tamalez instituzioen aldetik traba eta baldintza mordoxka dago, lotsagarria da. Etxean egindako 25 litroekin ezin daiteke etekin haundirik atera, ez kanpora atera, kontsumo priorako da.

Garestia da zure kabuz egitea?

Azkenean etxean egiteko garagardoa parra irteten da. Dendan erosi beharrean lehengaiak zuk erosi eta gero zuk kontsumitzen duzu, zuk egindako zerbeza. Diruarekin parra eta pertsonalki satisfakzio haundiagoa.

Hitzaldi dexente eman dituzu garagardoaren gainean.

Emandako tailerrak autogestionatutako lekuetan eman izan ditut. Gaztetxeetan kasu, autogestioaz horrenbeste hitz egiten dela, egin dezatela eurek euren garagardoa, eta kontzertuetan berau saldu. Gero etxean egin nahi duenak, badago interneten eta liburuetan nahi beste material.

Datorren urtean garagardo dastaketa saio bat egingo duzu Arranoan.

Urtarrilean izango da eta etxean egindako hainbat klase eramango ditut. Horiek probatu, koloreak eta zaporeak aztertu eta garagardo bakoitza nola egin dudana azalduko dut, gasa legamiaren arabera nola aldatzen den, zela edan behar den... Hori dena azalduko dugu, edanaz.

"Hartzitzen erabilitako legamiarekin ogia egiten dut"



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Genero Indarkeriaren Aurkako Eguna da gaur. Gizartean oso sartuta dagoen arazoa da eta ez da urrunera joan behar adibideak topatzeko: Soraluzen bertan indarkeriak eraginda, 10 espediente zabaldu dituzte eta 4 salaketa ipini dira. Erasoak uste duguna baino ohikoagoak dira, eta barneratuta ditugu, hasi irain, mespretxu eta gutxiespenetik eta eskua gainean ipintzen den kasuetararte.

Zer egingo zenduke eraso baten aurrian?

MIRIAM HERNANDEZ



Ez dakit, munizipaleri edo ertzainei deittuko notseke. Argi dago moztu egin bihar dala, erasuak, fisiko edo berbalak ez daukelako justifikaziorik. Hezkuntzan indar gehixago ipini biharko litzake.

NAIARA MARTIN



Behin euki neban tipo bat nerekin obsesionauta eta oso txarto pasatu neban. Autodefentsa garrantzitsua da holako kasuetan, eta igual eskolan landu biharko litzake. Agresio ez fisikuak aparte lagatzen dira, baina ez dira laga bihar. Nik uste Soraluzen ez dala behar beste salatzen, paso egitten dogula.

GARAZI CATALAN



Nikzaplasterkobatemongo notsake erasotzailiari. Elgoibarren mutilak ibiltzen dira nesken gainian, askotan minigonan doiazenen atzetik. Arazuaz berba egin bihar da eta eraso baten aurrian kontra egin, asko bagara egin geinke. Salatu egin bihar da.

SONIA OLABARRIA



Nik erasotzailien argazkixak edo euren izenak ipiniko neukez kalia. Izan be, erasuak kalia nahiko normalduta dare, lehendik datorren zerbait da eta urtiak biharko dira konpontzeko. Bikote harremanetan zaila da, irainak intimidadian pasatzen diralako. Kontzientziaziñua eskolatik hasi bihar da eta errespetua etxetik, geroko harremanetarako.

Eman zure iritzia sarean



Javier Alonso Zelaieta
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
 jotako tornilluak

Errekalde 21
 20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
 T. 943 75 16 00
 F. 943 75 24 61

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
 ETA PINTXO
 GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



 **Desing**

Disceinua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5
 Tlf.: 943 76 99 85
 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
 Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Herriko produktuak Durangoko Azokan

Gerediaga Elkarteak bultzatutako Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren 46. edizioak lekua hartuko du Landako Erakustazokan abenduaren 4tik 8ra. Gaztelupeko Hotsak zigiluak Markos Untzeta, Patta ta Sendaezinak, Igor Arzuaga & Luis Vil, Topeka, Batzuk, Jimmy Bidaurreta eta Xabi & Petti taldeen lan berriak estreintuko ditu bertan. Bestalde, Badihardugu Euskara Elkartearen standean Xabier Lete omentzeko herriko hainbat musikaririk eskainitako kantu emanaldiaren DVDa jarriko da salgai.



Taldeei buruzko informazio gehiago:



Kultur ekitaldien agenda

Gaur, azaroak 25:

ANTZERKIA

“Pareja abiarta” antzezlan,
Emakume Ausartak taldearen eskutik.
22:15ean, Zinean

Ant: Emakumeen Topagunea

Azaroak 26, zapatua:

KONTZERTUA

Aita Donosti abesbatza
20:00etan, Zinean

Ant: Ezoziko Ama Abesbatza

Abenduak 10, zapatua:

ANTZERKIA

“Los perfectos”.
22:15ean, Zinean

Ant: Soraluzeko Udala

Hogeita bederatzi parte hartzaile Kontrargiren Argazki Rallyan

Aurreko domekan Gipuzkoa-ko hainbat herritik hurbildutako hogeita bederatzi argazkilarik hartu zuten parte Argazki Kolektiboak antolatutako XXIII. Argazki Rallyan. Elkarreko kideek sei gai banatu zituzten: koloreak, ur-jauziak, txikiteoa, papera, erreflexua eta gai librea. Guztira maila oso oneko 174 argazki jaso dituztela azaldu dute rallyko arduradunek. Epaimahaiak abenduaren 2an iluntzeko 20:00etan San Andres auzoko Elkartearen erabakiko du irabazlea nor izango den eta sariak abenduaren 17an banatuko dituzte, 13:00etan kiroldegiko erakusketa aretoan.

Kontrargiren lana saritu dute

Diariovasco.com guneak Kontrargi Argazki Kolektiboaren 25 urtetako ibilbidea saritu du DV multimedia sariaren bitartez. Argazki Kolektiboak 50. hamarkadako 2000 zinta baino gehiago batu ditu eta ehunka argazki zahar berreskuratu. Carlos de Cos taldeko kidea oso pozik azaldu da: “Sari hau, egiaz, Mikel Valerorentzat da. Bera da 25 urtean Kolektiboari tiraka aritu dena eta pozik gaude bere lanak errekonozimendua jaso duelako”.



Iturria: Aitor Zabala (DV)



Iturria: Mikel Valero

Kontrargiko bazkide eta bazkide ohiak

Santa Zezilia ondo ospatuta

Musikariaren zaindariaren eguna aitzakia hartuta melodia goxo eta kantu alaiak bete dira aste honetan herriko bazterrak. Musika Eskolako lagunek astelehen iluntzea aukeratu zuten kalejiran irreteko. Abesbatzako lagunek eta herriko txistulariek berriz, Santa Zezilia egun berean koro-poteoa eginaz ospatu zuten eguna.



**ESTETIKA
SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tlfonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Hamasei soraluzetar Behobia-Donostia lasterketan

Hamabost gizonezko eta Hemakumezko batek hartu zuten parte Behobia-Donostian. Azkarrenahelmugaratzen Javier Gonzalez Garate izan zen, 606. postuan sailkatu zen 01:19:34 se-

gunduko denboran. Maialen Galarraga Adanez 15362. postuan sailkatu zen, 01:58:51 segunduko denbora eginda. Denbora guztiak hemen:

Javier Gonzalez	01:19:34	Zuhaitz Rodriguez	01:36:49
Iñaki Ruiz	01:25:16	David Martinez	01:38:20
Unai Ugarte	01:32:57	Jesus Uzin	01:39:57
Jose Angel Gamazo	01:34:56	Javier Gabilondo	01:42:32
Iñaki Arrondo	01:34:59	Moises Aranzeta	01:48:57
Gaizka Azkarate	01:36:18	Alberto Arizaga	01:51:54
Martin Azkarate	01:36:19	Aitor Leturiondo	01:54:43
Asier Rodriguez	01:36:35	Maialen Galarraga	01:58:51

Zigor Alberdi lehen herritarra Karakatera igoeran

Aurreko zapatuan Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkar- teak urtero antolatzen duen Karakatera igoera egin zen. 88 parte hartzaileen artean, bost soraluzetarrek egin zuten antxintxika,

iaz baino bat gutxiagok. Herritik tontorra zapaltzen lehena Zigor Alberdi izan zen; 32 minutu eta 48 segundotan egin zuen igoera eta 8. sailkatu zen. Hurrengo herritarrak Urko eta Koldo Azkorbeitia izan ziren; 22 eta 31 postuan sailkatzea lortu zuten, hurrenez hurren. Hemen denborak:

Zigor Alberdi	32:48
Urko Azkorbeitia	34:41
Koldo Azkorbeitia	36:05
Mikel Hernandez	36:45
Jabier Gabilondo	42:30



Korrikalariak Karakatera heltzen.

Iturria: Barren

Joseba Garcia 33. Eibarko I. Rallysprintean

Urteko lehenengo Rallysprintean hartu zuen parte aurreko zapatuan Eibarren Garciak.



Bere Renault SUPER 5 GT Turboarekin 33. sailkatu zen, 55 parte hartzaileen artean. Garciak azal dutakoaren arabera, froga ondo joan zitzaion baina kontrol postu bat saltatu eta 40 segundoko penalizazioa jarri zioten. Hala ere 33. sailkatzea lortu zuen, emaitza ona pilotuaren ustez. Urteko azken lehia izan da Garciarentzat. Renault Kopan lehenengo postuan sailkatu dela.

EMAITZAK

PELOTA

Aritz Lasa – Laskurain	18
Gonzalez – Merino	22

FUTBOLA

Sora (Erreg. Pref.) – Idiazabal K.E.	1-1
Aretx. Ariz K.E. – Sora (Erreg.)	0-3
Sora (Jub.) – Aretx. K.E. UDA	2-1
Arrasate C.D. – Sora (Kad.)	6-0
Sora (BHI mutilak) – Orioko F.T.	4-14
Arizmendi K.E. – Sora (BHI neskek)	8-0
Zumaiako – Sora (Erreg. Pref.)	1-2
Sora (Erreg.) – Gazteak	1-1
Urki – Sora (Jub.)	3-2
Sora (Kad.) – Aretxabaleta B	5-3
Sora (BHI mutilak) – Juv. de America	4-6
Bergara – Sora (BHI neskek)	3-2

AGENDA

PELOTA

Domeka 27, 17:00etan Eibarko Astelenan

Xala – Zabaleta
Retegi Bi - Laskurain

FUTBOLA

Zapatua 26, 18:15ean Ezozin

Sora (Erreg. Pref.) – Aretxabaleta

Sora (Erreg. Pref.) – Aretxabaleta
Ikasberri K.E. – Sora (Erreg.)

Zapatua 26, 15:45ean Ezozin

Sora (Jub.) – Eibartarrak

Zapatua 26, 11:00etan Ipintzan

Bergara – Sora (Kad.)

Zapatua 26, 11:00etan Estalan

Antzuola K.E. – Sora (BHI mutilak)

Zapatua 26, 11:30ean Ezozin


Sora (BHI neskek) – Urki

ZORION AGURRAK



Elia Ramos

Abenduan 6xan 12 urte!
Zorionak poxpolin eta
muxu haundi bat,
izeko Maribin partez!



Ivan Ayora Plata

Azaruan 30ian 16 urte!
Zorionak Trupakis!
Egun ona pasatu txipiron!
Txokolatezko muxutxu bat...
Etxekuak!




Nora Etxeberria

Zorionak familia guztian
partetik eta bereziki Haritzen
partetik! Muxu haundi bat
potxola!



FlowerPower

Zorionak eta muxu asko
asko asko lagunen partetik.



Nahia eta Euken Mendia

Azaruan 23an eta urrian 2xan
5 eta 3 urte betetzen ditzuzelako!
Zorionak bikote eta muxu askoo
etxekuen partez!

jaiotakoak

MARKEL LIZARRALDE ARRUABARRENA
OMAR MOHAMED ALI MOHAMED SALEC
FUD MOHAMED ALI MOHAMED SALEC



hildakoak

IGNACIO VALENCIA GARATE



LEHIAKETA

- ▶ Zein ageri da argazki honetan?
- ▶ **Saria:** Baserriko produktuez betetako otar eder bat.



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- ▶ **Irabazlea:** Aurreko aleko lehiaketako pertsonaia ez du inork asmatu.
- ▶ **Begoña San Martin,** udaleko harrera gune-ko langilea da aurreko aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.

• Lehiaketako pertsonaia bihurtu nahi? jarri gurekin harremanetan.

Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA




Iturria: Cristina Sologaitoa

ALIZIAREN EZKON AURREKO DESPEDIDA

Hogeita bi emakume honek Alizia Larrañagan ezkondu aurreko agurra ospatzeko batu ziran, oin 57 urte. Banko Gipuzkoanoko eskilaretan etara zebeu erretratua ederto apainduta 1954. urtian. Sasoi hartan ezkontzen zanan agurra prestatzeko eta ospatzeko lagun eta senidiak batzia oso ohikua izaten zan. Hala egin zebeu Alizian ezkon agurrian, erretratua etara eta lagun eta senide danak elkarrekin bazkaltzera juan ziran.

Argazkixan:

- | | |
|----------------------------|----------------------------|
| 1. Edurne Uzin | 12. Ofelia Larrañaga |
| 2. Susana Oregi | 13. Anita Murua |
| 3. Iciar Odriozola † | 14. Benita Galarraga |
| 4. Maria Luisa Imaz | 15. Cristina Sologaitoa |
| 5. Arantxa Txurruka † | 16. Ana Rosa Sologaitoa |
| 6. Maria Angeles Larrañaga | 17. Carmen Larrañaga |
| 7. Ezosi Onaindia | 18. Esther Azkarate |
| 8. Elizabet Uzin | 19. Maria Dolores Izagirre |
| 9. Florinda Azcona | 20. Arantxa Uriarte |
| 10. Alizia Larrañaga | 21. Aurita Ascaso |
| 11. Olga Lertxundi | 22. Begoña Idigoras |



SAIL OFIZIALA



TXINTXUA FILMSek aurkezten du ASIER ALTUNAren film bat

Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jon Sarasua, John Miles Folley, Joseba Zulaika, Miren Amuriza

BERTSOLARI

GIDOIA eta ZUZENDARITZA Asier Altuna PRODUKZIOA Marian Fernandez eta Asier Altuna KOPRODUKZIOA ETB Elena Gozalo

EDIZIOA Laurent Dufreche IRUDIA Gaizka Bourgeaud ZUZENEKO SOINUA Pablo Bueno eta Joseba Otxoa MUSIKA Herrikojak



Gaztañerre 2011



Argazkia: Carlos de Cos

Argazkia: Carlos de Cos